

Prentsa oharra

Nota de prensa



2018ko ASFALTATZE KANPAINAK 900.000 EURO INBERTITUKO DITU KALEAK ETA BIRIBILGUNEAK HOBETZEKO

2018. urteari dagokion hiriko kaleen aglomeratu kanpaina onartuko du datorren asteartean Donostiako Udalak.

Ernesto Gasco alkateordeak adierazi duenez, “14 kale eta biribilgune asfaltatuko dira guztira, ia 900.000 euroko aurrekontuarekin guztira, eta lizitaziora aterako da Gobernu Batzordeak onartu ondoren. Kasuren batean 25 urte ere asfaltatu gabe daramatzaten kaleak dira, zorua behar bezalako egoeran ez dagoenean egiten diren unean uneko konponketez haratago.”

Gascok esan duenez, kasuren batean autobusen eta ibilgailu astunen trafikoa jasaten duten kaleak dira, asfaltoa hondatuz, edo azkenaldian obra bat izan duten eta bertako asfaltoa behar bezalako egoeran jarri beharreko kaleak.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Kanpainan bildutako jardunak honako hauek dira:

Ondarretako biribilgunea	Zumalakarregi hiribiderako sarbideak, Matia kaleak eta Ondarretako tunelaren ahoak mugatutakoa	10 egun	Gauetz
Pio Baroja pasealekua	Isturin kalerako sarbidearen eta Miramar Jauregiaren ondoko biribilgunearen artean	7 egun	Egunez
Errondo pasealekua	Podavinesko biribilgunearen eta Errondogaineko igoerako elkargunearen artean	6 egun	Egunez
Errondo pasealekua	Easo-Urbietarako sarbidearen eta Morlansko biribilgunearen artean	8 egun	Egunez
Arbos Maisuaren kalea	Osorik	5 egun	Egunez

Prentsa oharra

Nota de prensa

Alkolea kalea	Egia kalearen eta Iberdrolako estaziorako sarbidearen artean	3 egun	Egunez
Aldakoenea kalea	Karmengo Ama kalearen eta Ametzagaina hiribidearen artean	7 egun	Egunez
Berio pasealekua		5 egun	Egunez
Aita Orkolagaren pasealekua	Iturrietako Benten eta Txalin bidearen arteko glorieta	4 egun	Egunez
Bertsolari Txirrita kalea		3 egun	Egunez
Aita Donostia plaza		8 egun	Gaez
Frantzia pasealekua	Iztueta bidezubia eta Terminus hotelaren artean	5 egun	Gaez
Egia kalea	Mandasko Dukearen eta Alkolea-Ametzagaina kaleen artean	10 egun	Gaez
José María Salaberria kalea	Pedro Manuel Colladoren eta Podavinesen artean	6 egun	Egunez

Galtzadaren egoeraren arabera, honako tratamendu hauek egingo dira:

- Indartzea: 5 zentimetroko lodiera duen asfalto geruza zabalduta
- Saneatzea: 5 zentimetroko aldez aurreko fresatze lanarekin, fresatze tarte betetzea eta 5 zentimetroko lodiera duen asfalto geruzarekin indartzea

Beti ere kontuan izanda jada asfaltatutako gainerako galtzadarekin uztartzeko modua, eta bertan dauden erregistro tapak, bolardoak, pintura horizontalak, eta abar.

Kanpainaren aurreikuspenaren arabera, 16 aste iraungo dute lanek, betiere eguraldi onak asfaltoaren itsaspena ahalbidetzen badu.

Kanpainaren aurrekontua 898.246,96 eurora iristen da.